

KONTROL MOZIOA

GIZARTE ZERBITZUEN ZORROAK DONOSTIARAKO EZARTZEN DITUEN PLAZEN BETETZE MAILA DELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko urtarrilaren 15ean Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko abenduaren 26an gizarte zerbitzuen zorro berria indarrean sartu zen. Gizarte zerbitzuei buruzko 12/2008 legearen aurreikuspenekin bat etorritik, dekretu honen xedea da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa arautzea, baita prestazio eta zerbitzu horiek lortzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak arautzea ere. Eta, bide horretatik, lege horretan aldarrikatutako eskubide subjektiboa ez ezik, aipatutako zorroaren prestazio eta zerbitzuak eskaintzeari dagokionez, EAEko administrazio publikoek dituzten betebeharrak mugatzea eta edukia ematea ere bai.

Zorroaren arabera, Gipuzkoak 1.000 plazako defizita du Foru Aldundiak eta udalek bermatu behar dituzten zerbitzuetan eta 2019. urterako 61 milioi euro inbertitu beharko dira behar horiek asetzeko.

Nahiz eta zorroak arautzen dituen plaza eta zerbitzuak 2017rako indarrean egon behar ziren, 2017. urtea hutsuneekin amaitu da eta, oraindik ere, hainbat aldaketa eta inbertsio egin beharko dira zorro berriak Gipuzkoarako arautzen dituen plaza eta zerbitzuak betetzeko.

Donostiaren kasuan, aurreko Udal Gobernuak lanak aurreratu zituen, zorroak aipatzen zituen zerbitzu berriak aldeztu aurretik irekiz: Hestia eta Goizaldiak, hain zuzen ere. Dena dela, oraindik ere hutsuneak ditugu hainbat zerbitzutan eta plaza berriak sortu behar ditugu.

Urtarrilaren 4an Gizarte-ekintzako delegatuak prentsan egindako adierazpenetan zioen legeak eskatzen duena baino gehiago eskaintzen dutela, baina errealitatea da oraindik ere zorroak arautzen dituen hainbat plaza martxan jarri gabe daudela gure hirian. Urtarrileko batzordeetan delegatuak esan zuenaren arabera, Donostian 34 plazako defizita dugu. Udal Gobernuaren aurreikuspenen arabera, legegintzaldi honetan 20 plaza sortu ahalko dituzte bost pisu irekiz, baina bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako 14 plazei dagokionez ez dakite noiz ireki ahalko duten zerbitzua.

Udal talde honen ustez, politikoki arduragabekeria da gure hiriko kaleetan bazterkeria egoeran dauden eta etxerik ez duten pertsonak ikustea eta, aldi berean, legeak ezartzen dituen gizarte-zerbitzuak ez bermatzea (eskubide subjektiboa izanda).

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du.

KONTROL MOZIOA:

- 1.- Udaltzakeriak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kronograma eta plangintza bat egin dezala bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako 14 plazak ezartzeko bide-orria zehaztuz.
- 2.- Udaltzakeriak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kronograma eta plangintza hori udal talde guztiokin parteka dezala.

Donostian, 2018ko urtarrilaren 19an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia